ale berezia

udaberria 2018 primavera

# Elkarrekin

Caritas Gipuzkoa

☎ 943 44 07 44 • komunikazioa@caritasgi.org • www.caritasgi.org









2. orr.

**KARTZELA, ELKAR EZAGUTZEKO ETA LAGUNTZEKO AUKERA**

## ALCANCEMOS LA RECUPERACIÓN PARA TODAS LAS PERSONAS

Este es el lema que proyecta CARITAS GIPUZKOA este año en su campaña y en su memoria de los datos del 2017.

Los datos macroeconómicos nos indican que existe una recuperación económica pero queremos insistir en la importancia de que esta mejora social llegue a todas las personas.

Hagamos un esfuerzo por incluir en esas mejoras, sobre todo, a las personas jóvenes que tienen pendiente su proyecto de vida emancipador y a las mujeres con menores que tienen la dificultad de formarse, trabajar y conciliar el cuidado al mismo tiempo. Y también las personas en situación de desempleo de larga duración, que por efecto de la crisis económica salieron del mercado laboral y que están atrapadas fuera de él.

Apostamos, por ello, por la Economía Solidaria, que corresponsabiliza a todos los agentes sociales, empresas, administración pública, entidades sociales y sociedad en la búsqueda de proyectos laborales inclusivos para todas las personas.

**«Apostamos por la Economía Solidaria, que corresponsabiliza a todos los agentes sociales, empresas, administración pública, entidades sociales y sociedad en la búsqueda de proyectos laborales inclusivos»**

CARITAS GIPUZKOA hace esta propuesta desde lo que somos, acompañantes, en los recorridos que hacen las personas en vulnerabilidad y exclusión social que atendemos en las Caritas parroquiales y en nuestros programas. Nuestra labor es, acoger, escuchar y acompañar a las personas en dificultad para que puedan construir un proyecto de vida inclusivo.

### HURBILTASUNA

Hori da gure xedea. Gure helburua. CARITAS GIPUZKOAko partaideengandik gertu egotea. Gure kideak –boluntarioak, kolaboratzaileak, bazkideak...– erakundean gertatzen denaren berri izatea. ‘Elkarrekin’ ale berezi honetan, ikasturtean zehar argitaratu ditugun zenbat albiste zeureganatu nahi ditugu. Batetik, Corpuseko kanpainaren –Lor dezagun hobekuntza pertsona guztientzat– nondik norakoa duzu irakurgai. Bestetik, espetxeko errealitate eta elkartasunari jaramon egiten diogu kartzelan sartuaz. Iparragirrek esango lukeen bezala: “poliki-poliki...”. Errealitate arrotza. Bestetik, gaixotasunari nola aurre egin: bakardadea, aldamenean egon, familiaren babesa, Osasuna, espiritualtasuna... Eta azkenik Esperantzari egingo diogu keinu. Egoera gordinetan, nola goiari eutsi. Guztia, Elkarrekin.

editorial

# COMUNICAR ES ECHAR REDES

Comunicar es más que informar, es abrir un diálogo con un "otro", es cuidar a quienes ya están en "nuestro" entorno, es sensibilizar a la sociedad, es movilizar a todos los agentes sociales, es incidir en el espacio público... Es decir, transformar la sociedad en el sentido de nuestra misión y visión para que las personas más vulnerables tengan su lugar en el mundo.

Comunicar es echar redes y en este sentido, también el Plan Estratégico 2017-2021 de CARITAS GIPUZKOA nos enmarca acciones en la estrategia de comunicación. Es, por ello, que hemos incrementado nuestro número de informaciones sobre nuestras actividades, nuestra agenda, nuestros posicionamientos ante realidades sociales que nos preocupan.

Además, hemos aumentado las herramientas a través de las que nos comunicamos. Nuestra nueva página web, las redes sociales y los correos electrónicos nos facilitan hacer comunidad con todas las personas que hacemos CARITAS GIPUZKOA.

Una comunicación que emocione porque la construimos, con los datos de la realidad que vemos, y con el corazón, y las historias de sufrimiento y esperanza que escuchamos. Eso esperan de Caritas las personas que acompañamos, una comunicación auténtica y empática.

Si creemos en lo que hacemos y lo amamos, si nos preocupan las personas más necesitadas, si queremos transformar el mundo, CONTÉMOSLO. Contémoslo, dentro, en nuestra casa, para reforzar nuestra tarea, y también fuera, para convencer a la sociedad y que posibilite oportunidades para las personas que acompañamos Somos comunicación, somos Palabra y Buena Noticia y tenemos la misión de mejorar el mundo.

**Mabel Cenizo**
Responsable del área de Comunicación e Incidencia, Formación y Voluntariado

# KARTZELA, ELKAR EZAGUTZEKO ETA LAGUNTZEKO AUKERA



Kartzelara bisita egitea oso egoera zaurgarri eta zailetan dauden pertsonekin elkartzeko eta laguntza eskaintzeko aukera bat da. Pertsona horiek, oso egoera zailetan egon arren, irekitasun handiko eta laguntza jasotzeko gaitasun eta premia handiko uneetan daude. Esperientzia hori dugu egunero Martuteneko kartzelako presoekin. Haiekin eta haien familia, seme-alaba, abokatu, kartzela-arloko profesional eta abarrekin. Pertsona asko dira: haiekin hitz egiten dugu, entzuten diegu eta zubiak eta bitartekari-lanak egiten ditugu.

Kartzela Pastoraltzako lanak hiru ardatz ditu: laguntza pastorala ematea, gizarte-laguntza ematea eta presoei eskubideak eskuratzen eta erantzukizunak betetzen laguntzea. Hirurogeita hamarretik gora boluntario, laiko, erlijioso eta apaiz bat baino gehiago joaten dira astero kartzelara, presoei sentiarazteko beren parrokiak eta kristau-elkarteak ez dituztela ahaztu eta askatasuna berreskuratzen dutenean haien zain izango direla. Oso lan isila, komunitatea benetan eraikitzen duten lan horietakoa eta Jesusen gonbita gauzatzen duena; izan ere, haiengan «Jesus preso dago, eta bisitatzera goaz».

Baina Kartzela Pastoraltzak erronka handiak ditu. Kartzelaren aurretik, kristau-elkarteak arreta handiagoa jarri beharko luke prebentzio orotan eta kartzelaren ordezko zigorretan; alderdi horrek, loteslea izateaz gain, eragin politikoa eta soziala du. Eta kartzela ondoren gertatzen denari dagokionez, parrokietan edo artzapez-barrutietan autolaguntzako taldeak eta familia taldeak sortzean pentsatu behar dugu, eta jarraipena egitean ere bai, batik bat bigarren aukerak bilatuz, afektiboak ez ezik, efektiboak ere bai (terapeutikoak, okupazionalak, lan-arlokoak, etxebizitzarekin lotuak), kartzelaren esperientzia bizi izan duten pertsonentzat.

Kartzela muga bat da, eta, bertan, min, sufrimendu eta ezintasun handia dago, baina muga orotan bezala, kartzelan orobat daude presoen arteko elkartasun- eta adiskidetasun-istorio asko, Jainkoaren seme-alaben duintasunarekin bizitzeko borroka asko, eta onbideratzeko eta eragindako kalteak konpontzeko gogo handia. Jarrai dezagun laguntzen, eta, horretarako, jarrai dezagun trebatzen, eremu horretan laguntzeko, bai eta presoen eta haien familien bizitzari eragiten dieten zigor- eta kartzela-arloko politiketan eragina izateko ere. Izan ere, beste zigor- eta kartzela-eredu bat posible da, eta beharrezkoa da.

Amaitzeko, preso baten mezua: «jende asko dago gutaz akordatzen dena eta laguntzen diguna. Gu ere hori bera egiten saiatzen gara hemen barruan gure artean, eta, etorkizunean, hor kanpoan, laguntza hori itzultzeko asmo dugu, boluntario gisa edo zuen ekintzetan parte hartuz edo edozein modutara». Orobat esana: «Mila esker handi bat Elizari».

**Martin Iriberri (SJ)**
Donostiako Martutene espetxeko kapilaua

**MARIJE GOIKOETXEA, LICENCIADA EN PSICOLOGÍA Y TEOLOGÍA**

# «Las personas en las que más confiamos son las que más necesitamos cuando no nos sentimos bien»

**LICENCIADA EN PSICOLOGÍA Y TEOLOGÍA, MARIJE GOIKOETXEA (MUNGIA, 1961) IMPARTE CLASES EN LA UNIVERSIDAD DE DEUSTO. DURANTE VARIOS AÑOS ESTUVO AL FRENTE DE LA PASTORAL DE LA SALUD DE LA DIÓCESIS DE BILBAO. DESDE 1996 HA PARTICIPADO EN DIFERENTES COMITÉS CIVILES DE ÉTICA Y MANIFIESTA QUE NUNCA HA TENIDO NINGÚN PROBLEMA DE CONTRADICCIÓN CON SU FORMACIÓN TEOLÓGICA.**

**¿Cómo se acompaña a la familia en la enfermedad?**
La enfermedad la padece toda la familia; nos afecta a todas/os. Acompañar en esa situación depende en gran medida no solo de nuestras capacidades sino también en la especificidad de la enfermedad y de los recursos que disponga la familia. Existen algunas claves para hacer frente a todo lo que supone la enfermedad: organizarse y reestructurarse. Es decir, aprender a vivir de otra manera que es lo que supone padecer una enfermedad.

**¿Cómo es la experiencia de enfermar y morir?**
Es un ejercicio del que se aprende mucho. La gran experiencia que la enfermedad nos proporciona a los humanos es, aprender a confiar en otras personas. Una enfermedad nos puede llevar a que un proyecto de vida finalice, por tanto, es una experiencia difícil, supone sufrimiento… A raíz de esa situación una persona tiene que reconfigurar su 'plan de vida', y el sufrimiento es una experiencia de aprendizaje.

**Es decir, que los efectos colaterales de una enfermedad afectan a la organización familiar.**
Sí. Convivimos en un sistema y alguien, el elemento central, enferma, a todas/os las/os demás también nos toca reconfigurarnos. Todo el mundo tiene que reorganizar una nueva manera de vivir, empezando por la propia persona que se encuentra enferma.

**Acompañar a la familia en la enfermedad ¿es un importante paso en la reorganización del sistema?**
Es fundamental. Es el mayor recurso. Cuando estamos enfermas/os, en quien más confiamos es en nuestra familia. Si la familia nos falla nos sentimos mucho peor. Las personas en las que más confiamos son las que más necesitamos cuando no nos sentimos bien.

**En los últimos años has estado trabajando en temas relacionados con los Servicios Sociales y la ética. Van de la mano ¿no?**
Sí. Para mí la ética tiene dos partes. Una, la que corresponde a la toma de decisiones éticas: la más apropiada para el paciente y para todo el sistema. Y dos, la que aglutina a las capacidades emocionales: escuchar, atender… a una persona enferma.



**El voluntariado de la Pastoral de la Salud tiene experiencia en este ámbito: son personas empáticas, cercanas…**
Es inestimable la ayuda que ofrecen. Algunas veces no están lo suficientemente valoradas/os, porque no disponen de los recursos necesarios para llevar adelante todas las capacidades y cualidades que tienen. Acompañar en un proceso de enfermedad, confiar en otras personas, es fundamental.

**¿La Soledad es una de las enfermedades del siglo XXI?**
Es una de las peores situaciones que se puede padecer. Una enfermedad supone, un 'yo no puedo'. Que alguien te acompañe a tomar un café, te dé conversación… Esto, el voluntariado de la Pastoral de la Salud lo realiza a la perfección. Logran que la persona necesitada coja aire. Cuando «yo soy autosuficiente», la soledad es un mal menor; pero cuando «yo no puedo», es una enfermedad terrible.

**¿La «calidad de vida» cuenta con buena salud?**
En general, no coincide solo con el valor, salud física, es decir, ausencia de enfermedad. Si soy capaz de llevar adelante mi identidad, lo que yo soy, tengo calidad de vida pese arrastrar alguna enfermedad. Los hay que no padecen ninguna enfermedad pero si una grave exclusión social. Dentro de la calidad de vida, la salud es un elemento, pero no es el único.

**¿Qué es la Bioética? Y la ¿Bioética Teológica?**
La Bioética, es la ética aplicada a las ciencias de la vida; las ciencias que tienen que ver con la vida de las personas desde la ecología hasta genética. La Bioética Teológica, en cambio, no sólo se basa en la razón humana sino que se abre a la propuesta de máximos: las/os que piensan que 'vida buena' es la basada en Jesús de Nazaret.

**La Espiritualidad ¿qué grado de importancia tiene a la hora de combatir la enfermedad?**
Mucha. Tiene que ver con el sentido que le doy a la enfermedad. Desde luchar con fuerza contra una enfermedad, es decir, querer seguir viviendo, hasta el aceptar la enfermedad con sentido. Ser capaz de reconfigurar mi vida o morir. Dar sentido, por ejemplo, es cuando una persona enferma, a pesar de que no se pueda curar, que alguien le dé un beso, que disfrute del sol, que luche contra un tratamiento durísimo… La Espiritualidad es la razón de ser de lo que hacemos cada día y naturalmente también cuando estamos enfermas/os.

# ESPERANTZAK BADU ESPERANTZA

**OTSAILAREN 24AN, DONOSTIAN OSPATU ZEN BIDETIK-EN –PASTORAL SOZIOKARITATIBOAREN TOPAKETA (OSASUN ETA ESPETXE PASTORALTZA, ETA CARITAS GIPUZKOA)– HITZALDIA EMAN ZUEN PATXI ALVAREZ DE LOS MOZOSEK (BILBO, 1967). «HAUTSITA DAGOEN MUNDU BATEAN ITXAROPENA BIZI» IZAN ZEN SOLASALDIAREN IZENBURUA.**

Gezurra badirudi ere, hori –Itxaropenean bizi– posible dela dio: «Mundua etengabe aldatzen ari da, une oro nobedadeak ereiten ditu. Sormenez, gorputz eta arimaz, irrikaz... beteriko pertsonak daude. Horrez gain, Jainkoa gure aldamenean dugula dakigu. Mundu hautsia da baina esperantza dugu», aipatu du jesuitak.

Alvarez de los Morosek azpimarratzen duen 'Esperantza', ez da lehen sorospenetakoa. «Hori baino gehiago da», gaineratzen du. «Eraldaketa da; aldaketa; elkartasunari aukerak zabaltzea. Gizarte mugimendu berriei; harrera egiteari; gizartea pentsatzeko era berriak. Eraldaketa esan nahi du. Frantzisko Aita Santuak esaten duen bezala 'benetako Iraultza Kulturala' da».

**PATXI ÁLVAREZ DE LOS MOZOS:**

**«Konprometitzen denak soilik –orean eskuak sartuz– aldaketaren ezaugarriak antzeman ditzake»**



Eta «Iraultza Kultural» horretan parte hartzeko, errealitatea auskultatu behar dela uste du. Barrutik begiratu behar dela, alegia. Ez kanpoko ikusle bezala errealitatean nahastuz: «Eskuak saltsan sartu behar dira, zikindu, busti, baztertuenekin egon, lagundu, errukia izan... Aldatu», dio Alvarez de los Mozosek.

## ERREALITATEA

Pertsonak batera eta bestera dabiltzan –asko eta asko gogoz kontra, errefuxiatuak...– mundu aztoratu batean bizi gara. Ez da ikuspegi batere baikorra esperantzari eusteko baina «mundu hau oso anitza dela», uste du bilbotarrak. «Errealitate asko daude: oso positiboak, eta baita iluntasun eta minez beteak ere. Duintasuna eta justiziaren alde egiten dugu lan. Batik bat, azkenekoen alde».

Garapenerako Hirugarren Munduko gaien inguruan aditua denez, hiru errealitatetan oinarritzen den 'Elefantearen Kurba'ren inguruan hausnartu du Alvarez de los Morosek: «Bat, badira muturreko pobrezian egon, eta euren errealitateak hobetzerantz egin dutenak. Bi: herrialde garatuetan erdiko mailan dauden pertsonen egoerak, okerrera egin du. Eta hiru: munduko aberatsen %1a, are aberatsagoa da».

Ikuspegi hain zalantzagarriaren aurrean, esperantzari eustea ez da nolanahiko erronka. Halere, berak, esperantza, bidelagun dugula pentsatzen du: «Baita kristau bezala ere. Jesus gurutze iltzatuan oinarritzen da gure esperantza. Nahiz eta, gaur egun 'Salba dadila ahal duena' bezalako jokabide ezberdinak ikusten ditugun».

## BIDEA

Berak, aldiz, 'Elkartasunaren bidea' aldarrikatzen du: «Salba gaitezen guztiok». Alvarez de los Mozosen aburuz, gizateriaren arazoek irtenbidea dute guztion artean aurre eginez gero. Baina bestalde, prentsako albisteei begiratu bat emanez gero, gehienak ezkorrak, ez da erraza esperantzazko argi izpi bat ikustea. «Azken urteotan munduko hamaika bazter ezagutu ditut. Eta egon naizen leku bakoitzean, esperantza zuten pertsonak ikusi izan ditut nahiz eta egoera zailak bizi izan; sufrimendua... Leku eta pertsonak, kanpotik begiratuz gero, itxuraz oso zail dutela pentsatu arren, esperantza asko ikusi dut pertsona horietan. Txiro askok etorkizunean sinesten dute. Baita nik ere». Horrexegatik borrokatu nahi du jesuitak.

Esperantza bizirik mantentzea primeran dago baina 'Esperantza Profetikoa'... Zer da hori? Bizkaitarrak argi eta garbi du: «Esperantza Profetikoa, egungo errealitatearekin kritiko izatea da. Ez naiz errealitatea, den bezalakoa izanda konformatzen. Errealitate hau aldatu egin behar da, eta egoera berri bat sortu daiteke; ezberdina egungoaren aldean"»

## TOPALEKUA

Patxi Alvarez de los Mozosek, esperantza "txiroena dela" adierazte du. Ez du inolako zalantzarik. «Min askoko lekuetan, pertsonak sufritzen daudenetan, biharko egunik itxuraz ez dagoen lekuetan... aurkitu ahal izan dut esperantza. Etorkizunean sinesten duten horietan ikusi ahal izan dut. Eta batzuetan gu, eszeptikoagoak gara; agian nahi izanez gero luxu hori izan baitezakegu».

Horrez gain «Esperantza eraginkorra» ere aipatzen du bizkaitarrak; honek, konpromisoarekin du zerikusia. Ez omen da ikusle jarrera bat, arduratzen den pertsonarena baizik: «Konprometitzen denak soilik –orean eskuak sartuz– aldaketaren ezaugarriak antzeman ditzake».

Eta asmo horiei guztiei aurre egiteko zertaz elikatzen da egunero Patxi? Hiru bizigaiz. Otoitzaz: Jainkoa ondoan dugula, eta errukiorra dela jakinez. Laguntasunaz: batik bat mundu hobeago baten alde borrokan ari diren pertsonekin aritzea. Eta hurbiltasuna azalduaz: beraien berri izan, eta beraiekin egonaz.